

# ANTOLAMENDU JUDIZIALARI BURUZKO ONLINE

## IKASTARORAKO DEIALDIA

Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak Antolamendu Judizialari buruzko ikastaroa eskaintzen du, on-line modalitatean, lan-poltsetan daudenentzat, beren-beregi.

Baldintzak:

1. Ikastaroan **lehenetasuna izango dute** Justiziako Administrazioiko Kudeaketa, Izapideketa eta Laguntza Judizialeko kidegoetako lan-poltsan daudenek; zehazki, euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna edo goragokoa dutenek eta justizia administrazioan lan esperientziarik ez dutenek.
2. Automatrikula egiteko, posta elektronikoko bat bidali behar da helbide honetara: [justiziagela@aju.ej-gv.es](mailto:justiziagela@aju.ej-gv.es). Ikastaroan matrikulatzeko eskatu behar da, eskatzailearen datu guztiak jarri behar dira (**izena, abizenak eta NANA**) eta **posta elektronikoko helbide** bat adierazi behar da. Automatrikula e-mailez egiterik ez badago, fax bitartez egingo da (945 01 91 52).
3. Automatrikulatzeko epea maiatzaren 9an zabalduko da, eta maiatzaren 20an itxiko da, 08:00etan.
4. Maiatzaren 23tik 24ra bitartean, posta elektronikoko bat bidaliko zaie ikastarorako onartu direnei. Erabiltzailea, pasahitza eta ikastaroan nola sartu adieraziko zaie posta horretan.
5. 200 plaza eskaintzen dira. Hautatzeko, bitartekoen lan-poltsako hurrenkerak izango du lehenetasuna.
6. Ikastaroa maiatzaren 24an hasiko da, 16:00etan, eta ekainaren 20an amaituko da, 08:00etan. Epe horretan ikasleak online sar daitezke ikastarora.
7. Ikastaroa moduluz osatuta dago. Modulu bakoitza amaitzeko, autoebaluazio-test bat egin behar da. Test horri esker, ikasleak zenbat aurreratu duen jakingo du, eta moduluak behar beste errepikatzeko aukera izango du, modulua behar den moduan ulertu eta ikasi arte.
8. Azterketa egiteko eskubidea izateko, ikasleak **ikastaroak dituen modulu guztiak ikusi beharko ditu pantailan, eta ikastaroko test guztiak egin beharko ditu.**
9. Ikastaroa amaituta, **ekainaren 20tik 24ra bitartean**, ikastaroaren **azterketa (online)** egiteko epea irekiko da. Ikastaroa gaindituta, ordezkapenak egiteko deitu ahal izango zaie lan-poltsetan daudenei.

# JURISDIKZIO ZIBILARI BURUZKO ON-LINE IKASTARORAKO DEIALDIA

Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak Jurisdikzio Zibilari buruzko ikastaroa eskaintzen du, on-line modalitatean, lan-poltsetan daudenentzat, beren-beregi.

Baldintzak:

1. Ikastaroan **lehentasuna izango dute** Justiziako Administrazioiko Kudeaketa eta Izapideketa Judizialeko kidegoetako lan-poltsan daudenek; zehazki, euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna edo goragokoa dutenek eta justizia administrazioan lan esperientziarik ez dutenek.
2. Automatrikula egiteko, posta elektronikoko bat bidali behar da helbide honetara: [justiziagela@aju.ej-gv.es](mailto:justiziagela@aju.ej-gv.es). Ikastaroan matrikulatzeko eskatu behar da, eskatzailearen datu guztiak jarri behar dira (**izena, abizenak eta NANa**) eta **posta elektronikoko helbide** bat adierazi behar da. Automatrikula e-mailez egiterik ez badago, fax bitartez egingo da (945 01 91 52).
3. Automatrikulatzeko epea maiatzaren 25ean zabalduko da, 10:00etan, eta ekainaren 13an itxiko da, 08:00etan.
4. Maiatzaren 14tik 15era bitartean, posta elektronikoko bat bidaliko zaie ikastarorako onartu direnei. Erabiltzailea, pasahitza eta ikastaroan nola sartu adieraziko zaie posta horretan.
5. 150 plaza eskaintzen dira. Hautatzeko, bitartekoen lan-poltsako hurrenkerak izango du lehentasuna.
6. Ikastaroa ekainaren 15ean hasiko da, 16:00etan, eta uztailaren 15ean amaituko da, 08:00etan. Epe horretan ikasleak online sar daitezke ikastarora.
7. Ikastaroa moduluz osatuta dago. Modulu bakoitza amaitzeko, autoebaluazio-test bat egin behar da. Test horri esker, ikasleak zenbat aurreratu duen jakingo du, eta moduluak behar beste errepikatzeko aukera izango du, modulua behar den moduan ulertu eta ikasi arte.
8. Azterketa egiteko eskubidea izateko, ikasleak **ikastaroak dituen modulu guztiak ikusi beharko ditu pantailan, eta ikastaroko test guztiak egin beharko ditu.**
9. Ikastaroa amaituta, gaitasun-proba bat egiteko deia egingo zaie pantaila guztiak ikusi dituzten eta test guztiak egin dituzten ikasleei. Ikastaroa gaindituz gero, jurisdikzio honetan ordezkapenak egiteko deitu ahal izango zaie lan-poltsetan daudenei.
10. Ikastaroa amaitu eta hurrengo astean (uztailaren 18tik 22ra), aurrez-aurreko azterketak egingo dira Bilbo, Donostia eta Gasteizko EATetan.